

## **2020/2021EKO NEGUKO IKASTAROEN UDAL JARDUEREN ARAUDI BEREZIA**

COVID-19ren krisiak Osasun Ministerioak ezarritako araudia dela eta, kirol eta kultura instalazioetara sartzeko salbuespenezko baldintza berriak honako hauek dira (horiek guztiak aldatu edo egokitu daitezke nahitaez bete beharreko protokoloen arabera).

Funtsezkoa da erabiltzaile guztien lankidetzeta eta inplikazioa instalazioaren arau orokorrak eta banakako arauak errespetatzeko, hala nola:

- Instalazio osoan maskara nahitaez erabiltzea.
- Segurtasun-tartea 1,5 m-koa izatea.
- Eskuak garbitzea eta desinfektatzea, bai eta kutsadurari aurre egiteko segurtasuna eskatzen duten guztiak ere.

Instalazioan baimendutako gehieneko edukiera Osasun Ministerioak eta/edo Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak (INSP) markatutakoa izango da. Instalazioko eta kultura edo kirol jardueretako espazio guztiek edukiera mugatua dute, unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera.

Nahitaez bete beharko dira instalazioko langileek adierazitako arauak eta gomendioak. Horietako edozein ez betetzea berehala instalaziotik kanporatzeko arrazoia izango da.

Aldaketa horiek ez dute inola ere ekarriko aurreko datan kontratatutako zerbitzuen tasen itzulketa edo konpentsazio ekonomikorik.

Jardueretarako araudi espezifikoak honako hau da:

Ikasturteko iraupena duten jarduerak 2020ko urritik 2021eko maiatzera bitartekoak izango dira, baina 3 alditan banatuko dira:

- 1. aldia, urritik abendura.
- 2. aldia, urtarriletik martxora.
- 3. aldia, apiriletik maiatzera.

Jardueren ordainketa ere zatika egingo da.

- 1. aldia izena ematen den unean bertan ordaintzea.
- Banku-sortaren bidez geratzen diren aldiak.

Jarduera bakoitzaren edukiera osasun-agintariek ezarritakoa izango da.

Jardueren artean gutxienezko denbora bat egongo da ezarrita, parte-hartzaileen pilaketak eta gurutzaketak saihesteko.

Gela guztietan gel hidroalkoholikoa eta desinfektatzeko produktuak egongo dira.

Erroldatu diren pertsonen lehentasuna izango dute jardueren izen ematea.